

Pobrezia eta giza bazterketaren
aurkako europar sarea Euskadin
Red europea de lucha contra la pobreza
y la exclusión social en Euskadi
European anti poverty network
in the Basque Country



POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN KONTRA BORROKATZEKO SAREAREN KOMUNIKATUA

2024ko urriaren 17a

Pobrezia desagerrarazteko nazioarteko eguna

0 POBREZIA

1992an Nazio Batuek urriaren 17a aitortu zuten pobrezia desagerrarazteko nazioarteko egun modura.

Bere sorrera Frantzian dago, 1948an, Parisko Trocadero plazan 100.000 lagun baino gehiago bildu zirenean giza eskubideen eta askatasunaren alde manifestatzeko, eta pobrezia, gosearen, indarkeriaren eta beldurraren biktimei elkartasuna adierazteko.

Gaur munduan barrena hainbat ekintza egiten dira pobrezia amaiera eta hura jasaten duten pertsonetara elkartasuna erreindikatzeke.

Pobrezia egoera ikaragarria da, inork beretzat nahi ez duena, ezta bere familia nahiz adiskideentzat ere. Pobrezia gaizki bizitzea da, baldintza txarretan. Diru nahikorik ez izatea egoki bizitzeko; ezin zerbitzuak edo ondasunak eskuratzea, hileroko fakturak ezin ordaintzea, neguan berogailua ezin piztea, zure seme-alaben gastuei ezin aurre egitea, dentistarengana ezin joatea, ezin erostea arropa edo oinetakorik... eta, are gehiago, egoerarik larriengan, bizitzeko etxe bat ere ez izatea.

2015ko irailaren 25ean, NBEko 193 estatu kideek Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuten, planetarekiko eta bertako biztanleekiko errespetuzko oparotasuna lortzea helburu duen asmo handiko plana.

2018ko apirilaren 18an Euskal Herriak Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartu zuen. Agenda hori Eusko Jaurlaritzak garatutako esparru estrategikoa da, bere politikak eta ekimenak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) lerrotzeko.

1. helburua pobrezia amaiera da, eta 2030ean pobrezia erdira murriztea du helburu. NBEren aurreikuspenen arabera, 800 milioi pertsona baino gehiago muturreko pobrezian bizi dira, egunean 2,15 dolar baino gutxiagorekin. Baina pobrezia ez da herrialde pobretuentzat bakarrik:

- Europan 161 milioi pertsona baino gehiago bizi dira pobrezia- eta gizarte-bazterketako arriskuan – Arope adierazlea-
- Espainian, 12,7 milioi pertsona, % 26,5 dira.
- Euskadin 422.000 pertsona baino gehiago, euskal herritarren % 19,5.

EAPN – Euskadi

Harrobia plaza 4, 3º. 48003 Bilbo

Tfno: 94-4161884 - E-mail: coordinacion@eapneuskadi.net

CIF: G-48900336. Nº en el R.A. de Gobierno Vasco: FD/B/00084/1997

Euskadin pobrezia tasak txikiagoak dira estatuko eta baita Europako batezbestekoak baino. Biztanleriaren gehiengoak ondo bizi gara, bizitza kalitate egokia eta duina daukagu. Euskadik sistema publiko indartsuak eta preziatuak garatu ditu: Osasunerako eta hezkuntzarako eskubide unibertsalaz gain, Euskadik diru-sarreraren bermerako, inklusiorako, etxebizitzarako eta enplegu duinerako eskubide subjektiboak gehitu ditu.

Baina euskal biztanleriaren zati batek ez du bizi-kalitate hori, ez ditu eskubideak eskuratzen, Eusko Jaurlaritzak berak egindako txostenen arabera:

- ✓ Arriskuan dagoen biztanleriaren % 24,5 ez da diru-sarrerak bermatzeko sistemara sartzen. Hauek dira 39.143 pertsona.
- ✓ 100.000 baino gehiago pobrezia larrian daude - Eurostat adierazleak-.
- ✓ 422.000 baino gehiago pobrezia- eta gizarte-bazterketako arriskuan daude - AROPE adierazlea-.
- ✓ 3.300 pertsonak baino gehiagok ez dute etxerik.
- ✓ Etxerik gabeko pertsonen kopurua bikoiztu egin da 2012tik 2022ra
- ✓ 114.396 pertsonak etxebizitza eskuratzeko beharra dute.

Pobrezia gehien kaltetzen dituen kolektiboak dira Europakoak ez diren pertsona migratzaileak, ama soilik duten familiak, lan ezegonkorrak dituzten pertsonak; zalantzarik gabe, sufrimendu-egoera askok aurre egin behar diote egunerokotasunari.

Pobrezia eta gizarte-bazterketa ez dira kasualitatearen, zortearen edo bakoitzaren merituen ondorio. Ez dugu zertan etsi egoera horietan, ez baitira konponezinak.

2030 Agendaren helburuak lortu nahi baditugu, ekin egin behar diogu, berehala erreakzionatu behar dugu. Gizarte bakar bat ere ez da duina, ezta bidezkoa ere, baldin eta bere biztanleriaren zati bat pobrezian bizitza ahalbidetzen badu, pobreziarekin amaitzea, guztiok inplikatzeko gaitu, administrazioa eta gizarte zibila.

EAPNk pobrezia desagerraraztea du helburu, pobrezia amaiara, garapen jasangarriko agendaren 1. helburuak ezartzen duen bezala.

Talde politikoan, eragile sozialen eta gizarte zibilaren arteko itun bat eskatzen dugu, akordio zabala, hauek lortzeko

- Epe luzera: 0 pobrezia horizontearekin, eredu sozioekonomiko bidezkoago eta solidarioago batean pentsatuz
- Epe ertainera: Basque Country 2030 Agendan ezarritako helburuekin. Pobrezia erdira murriztea.
- Epe laburrean: Sistema publikoetako prestazioak behar dituzten pertsona guztiei bermatzea eta sarbide erraztea: BGDS, DBE, Etxebizitzarako prestazio ekonomikoa, etab.

EAPN EUSKADI HONAKO ENTITATEEK OSATZEN DUTE

ACCEM	CARITAS EUSKADI	IRSE ARABA	PEÑASCAL
ADSI	CEAR	IRSE EBI EUSKADI	SARTU
AGIANTZA	EDE	ITAKA - ESCOLAPIOS	SEC. GENERAL GITANO
AGINTZARI	ELKARBANATUZ	IZANGAI	EUSKADI
AMIARTE	ETORKINTZA	KALE DOR KAYIKO	SORTARAZI
BERRIZTU	EUSKARRI	KOOPERA	SUSTERRA
BETI GIZARTEAN	FONDO FORMACIÓN	LAGUN ARTEAN	T4
BIDESARI	GIZAKIA	LAGUNGO	ZEHAR ERREFUXIATUEKIN
BIZITEGI	GOIZTIRI	MARGOTU	ZUBIETXE
BIZKAISIDA	HARRIBIDE	MUNDUKO MEDIKUAK	